

munduak guztiontzat behar ko luke

CHENOBILEN LAGUNAK

Udako egun zoragarria da. Ane Pirata eta Patakonek Txindokiko magalera joan dira, Larraitzen dagoen parkean tirorin ibiltzerako. Bertan ezagutu duete Marta, Ukrainako neskatoka.





WFFFFF!!!

EZ, NI KEPA NAIZ, KATERYNA UKRAINAKO DA, IVANKIV IZENeko GUNE BATEKOA, UDA GURE ETXEAN PASATZEN DU.

ZU KATERYNAREN AITA IZANGO ZARA...



OPORRETAN ETORTZEN ZARA EUSKAL HERRIRA? ETA ZURE FAMILIA?

NIRE FAMILIA UKRAINAN GERATZEN DA, EZIN DUGU DENOK ETORRI.

CHERNOBILGO ZENTRAL NUKLEARRETIK OSO GERTU BIZI DIRA, OSO INGURUNE KUTSATUA DA ETA EUSKAL HERRIRA AIRE GARBIA ARNASTERA ETORTZEN DIRA KATERYNA ETA BERE HERRIKO BESTE HAUR ASKO.



1986AN
LEHERKETA GERTATU ZEN,
ETA INGURUNE GUZTIA KUTSATU ZVEN
ERRADIOAKTIBITATEAK. GU ASKOZ
BERANDUAGO JAIO GINEN, BAINA
KUTSADURAREN ONDORIOAK SUFRITZEN
SEGITZEN DUGU.

CHERNOBILEN
GERTATU ZEN ASPALDI
ISTRIPU NUKLEAR LARRI
HURA, EZTA?

LURRA KUTSATUTA
DAGO, BERTAKO
BARATZETATIK JATEN
DUTE ETA BERAZ,
KUTSATZEN JARRAITZEN
DUTE



UDAN EUSKAL HERRIRA
ETORTZEN GARA, KUTSADURATIK
PIXKA BAT IHES EGITEKO. EDERKI
PASATZEN DUGU UDA HEMEN,
OSASUNTSU JANEZ ETA
ERRADIOAKTIBITATEK
URRUN.

OSASUN MUNDU
ERAKUNDEAREN ARABERA, ADIN
TXIKIKOEK KUTSATUTAKO
EREMUETATIK KANPO PASATZEN DUTEN
HILABETE BAKOITZEKO BEREN BIZITZA
ITXAROPENA 12-18 HILABETE
BITARTEAN LUZATZEN DA.

AAAH!

DENBORA
ASKO DA HORI,
ONDO PASATZEKO
DENBORA ASKO...



CHERNOBILEN LAGUNAK

Gipuzkoako zenbait familiak osatua dago eta helburu bat dute: 1986an Chernobileko zentral nuklearrean gertatutako hondamendia dela-eta ondorio erradioaktiboak jasaten ari diren umeen osasuna hobetzen laguntzea.



6-18 urte bitarteko haurrentzat egonaldiak antolatzen dituzte udan Euskal Herrian. Egonaldi hauei esker umeen erradioaktibitatearen maila %30 eta 40 bitartean jaisten dela diote adituek.



Egitarauan parte hartzen duten umeen gehiengoak ez du ageriko gaixotasunik eta ez dute tratamendu medikurik behar izaten, baina beren sistema immunologikoa ahulduta dago.

Matxitako Kalea, 4A 3. eskubia, 20800 Zarautz
Telefona: 689 58 62 77 , 690 05 76 72
chernobilenlagunak@yahoo.es